

Bide publikoen garbiketari buruzko ordenantzaren aldaketa. Haserako onespena eta jende aurreko erakusketa.

Iragarkia

Udal Korporazioak (Plenoak) 2001ko urtarrilak 29an batzarraldian, hurrengo akordioa hartu du:

9. Kaleen garbiketari buruzko Udal Ordenantza aldatzea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez, Erregimen Lokalaren Oinarrien Legeko 47. artikulua eskatzen duen gehiengo absolutua osatzen duten bertako zinegotzien aho batez eta Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Udal Batzorde Informatiboaren Batzordeak aurrez 2001eko urtarrilaren 24an diktaturik, ontzat eman du hurrengo,

AKORDIOA

Lehenengo. Bide publikoen garbiketa eta eraiketa zein lurren erabilera eta iraupenari buruzko Udal Ordenantza hasiera baterako onartzea erantsiriko testuaren arabera.

Bigarren. Aipatu onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea agintzea.

Hirugarren. Herri informazioaren izapideari ekitea deklaratzeko honela interesaturik legokeen edonork egokiak derizkion iradokizun edo erreklamazioak egin ahal ditzan araututako materiari buruz hogeita hamar eguneko epe barruan aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarren. Ordenantza honen aldaketa hau behin betirako onartzea agintzea esandako epe barruan testuari iradokizunik edo erreklamaziorik egiten ez bazaio.

BIDE PUBLIKOEN GARBIKETA ETA ERAIKETA ZEIN LURREN ERABILERA ETA IRAUPENARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETAREN TESTUA

—19. artikulua hurrengo eran geratuko da erredaktatua:

19. artikulua. Eraiketa materialak eta obra-hondakinak erretiratzea.

Kalean obrak egingo direnean edota kalea erabiltzen bada edozein obra-tipotarako hondakinak depositatzeko, hurrengo arau orokorrak bete beharko dira:

—Galarazia geratzen da zuzenean kalean depositatzea eraiketa materialak eta ondoriozko obra-hondakinak, horretarako jarrita egongo diren edukiontzietan depositatuko direlarik. Hauek arreta handiz kokatuko dira zorua kaltetu gabe, edukiontzia lurretik isolatuak geratuko direlarik egurrezko tabloien eta antzeko mekanismoren baten bidez.

—Edukiontzia jartzeko arauzko udalbaimena beharko da. Edukiontzia normalean jarriko dira egoki aparkatuta dauden ibilgailuek eratzten duten kanpo aldeko marra gainditu gabe eta beti ere udal agintarietara seinalatutako lekuan.

Aipatu edukiontzia hitsik dauden beste batzuekin ordezkatuko dira eduki osoaren lautatik hiruz beteta daudenean.

—Baimenen titularrek hurrengo betebeharrak konplitu beharko dituzte edukiontzia traslatazeko:

a) Lanak bukatu eta hurrengo 24 orduetan obra-hondakinak erretiratu egin beharko dituzte eta edukiontzia ezingo dira kalean eduki larunbatetan 14:00etatik aurrera edota jai-bezperetan 20:00etatik aurrera, astelehen-goizetako 7:00ak arte edota jai-ondorengo egunak arte, baimenaren titularrak garaiz erretiratu beharko dituelarik.

Edukiontzia jai-bezperan erretiratzeko asmotan, obraren promotoreak erreserbatu ahal izango du edukiontzia egon den lekua behar bezala seinalatuz obrak seinalizatzeko arauen arabera (1990ko maiatzaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

b) Aurreko paragrafoan esaten dena ez bada betetzen, Udal Txit Garaiak edukiontziak erretiratu ahal izango ditu era subsidiarioan eta beti aurreko obligazioa huts egiten duenaren kargura, bere kargura joango direlarik edukiontziak lekuz aldatzeak eta almagazteak sortu ditzakeen gastuak, kontuan hartu gabe aplikatu dakiokkeen santzioa edota legaltasun urbanistikoa berrezartzeko espedientea izapidatzearen tasa abonatzea kasu balitz.

—Edukiontziak behar bezala instalita egongo dira normal erabiliko diren lan-ordutegiaz kanpo.

—Edukiontzia erretiratu orduko, eraikitzaileak edo arduradunak garbitu egin beharko du bera egon den lekua.

—Salbuespenez Udalak exijitu ahalko du egokiak derizkion kasuetan eta hiriko zirkulazioaren garapen normalean izan dezakeen eragin kaltekorren arabera, edukiontziak jarri eta erretiratzea garai edo leku zehazetan ordutegi murriztu baten barruan eginaraztea, kasu bakoitzean Korporazioak finkatuko duelarik hau.

—29. artikuluan hurrengo aldaketak egin dira:

29. artikulua. Arau-haustekak eta zigorrak.

—1. paragrafoari intzisu bat erantsi zaio hitzez honela dioena:

« eta zehazki edukiontziak kaleetan mantentzea larunbatetan 14:00etatik aurrera edota jai-bezperetan 20:00etatik aurrera astelehenetako edo jaiegunen hurrengo lanegunen 7:00ak arte eta edukiontziak lurretik ez isolatzeak».

—Beste intzisu bat erantsi zaio 2. paragrafoari hitzez hitz honela dioena:

« eta beti ere Ordenantza honetako 19. artikuluan ezarritako baimenik gabe kaleak okupatzeak».

—Azkenik zigorren zenbatekoak hurrengo eran eguneratu dira:

Zigor arinak: 2.500 pta. arte dioen lekuan.

25.000 pta. arte esan behar du.

Zigor larriak: 2.501 pezetatik 5.000 pezetara dioen lekuan.

25.001 pezetatik 50.000 pezeta arte esan behar du.

Pasaia, 2001eko urtarrilaren 29a.—Juan Carlos Alduntzin Juanena, Alkatea.

(376) (1693)